

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua guk ekoitziko dugunez, hainbat pieza behar izango ditugu. Hauek dira behar izango ditugun piezak:

Lehenik eta behin, geroago moldatuko ditugun aterkiak Ezpeleta enpresari erosiko dizkiogu. Aterki hauek bi modelotakoak izango dira. Alde batetik, modelo beltza egongo da. Modelo hau hiru euroko prezioan erosiko dugu. Bestetik, modelo koloredunak edukiko ditugu, lau eurotan erosiko ditugunak.

Bigarrenik, aterkiari jarriko diogun txipa MediaTek enpresari erosiko dizkiogu. Txip bakoitza 4 eurotan erosiko dugu.

Hortaz gain, aterkia hartu behar dugula adierazten digun argia beharko dugu. Argi hau, kolore gorriko LED txiki bat da, aterkiaren euskarrian jarriko duguna. Argi bakoitza 15 zentimotan erosiko dugu.



Aterkia kargatu ahal izateko, aterkiontzak izango duen alimentazio elektrikoko kableak beharko ditugu. Kable hauetako bakoitza 50 zentimotan erosiko dugu.

Azkenik, metalezko xaflak beharko ditugu aterkiontzia egiteko. Xafla bakoitza 80 zentimotan erosiko dugu; eta, gutxi gora-behera, xafla bakoitzarekin aterkiontzi bat sortzeko erabiliko dugu.

Kostuak murrizteko eta azkeneko prezioa jaisteko, pieza horiek, aterkia eta txip-a izan ezik, txinatik eskuratuko ditugu "ALIBABA" enpresaren bitartez. Baliabide guztiak alokatutako lokalera eramatea eskatuko dugu. Bertan ditugula, etorkia sortzen hasiko gara.

Ekoizpenaz gain, salmentari buruzko kontuetaz arduratuko gara ere. Horretarako, ordenagailu bat beharago dugu, alokatutako lokalean jarriko duguna. Erosiko dugun ordenagailua Asus MB169B+ ordenagailua da, eta 199 eurotan erosiko dugu Mediamarkt.

